



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko maiatzaren 25a

57. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-26/PES-00082. Galdera, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionalaren proiektuan 2024an jaso ziren aldaketa nagusiei eta horien kostu ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-26/PES-00085. Galdera, Nafarroako landa-eremuetan digitalizazioaren arloan egindako jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-26/PES-00086. Galdera, jakiteko zertan den mozio honen betetze-egoera: Nafarroako Gobernua premia-tzen da Itoizko zentral hidroelektrikoa abio beltzeko azpiegitura estrategiko bihurtzeko aukera aztertu eta sustatu dezan CANASA SA eta Red Eléctrica Española (REE) sozietateekin batera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-26/PES-00088. Galdera, NTV Solutions enpresak jasotako dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-26/PES-00089. Galdera, administrazio-egoera irregularrean egonik ezohiko erregularizazio-prozesuan sar daitezkeen pertsonak artatzeko zerbitzuaren lizitazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-26/PES-00090. Galdera, Osasunbidea Osasun Zerbitzuan eta Osasun Departamentuan telelana egiten duten pertsonen buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-26/PES-00091. Galdera, Tuterako Ikastetxe Integratu Politeknikoa-Eskola Tekniko Industrialean 2025-2026 ikasturtean Soldadura eta Galdaragintzako erdi-mailako heziketa-zikloa ez eskaintzeko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-26/PES-00092. Galdera, aerosorgailu-palen bolumenari eta birpotentziatze-prozesuen bidez edo bizitza baliagarriaren amaierara iristeagatik birziklatutako bestelako osagaien bolumenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-26/PES-00093. Galdera, Moves Planean artatu gabe dauden eskabideak Tximista programan sartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-26/PES-00094. Galdera, Etxegaray BHZko plantillaren salaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

- 11-26/PES-00095. Galdera, Nafarroan gizarte-bonu termikoa ordaintzeko atzerapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-26/PES-00096. Galdera, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen desgaitasuna baloratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-26/PES-000097. Galdera, erregularizatu gabeko egoeran dauden migratzaileei desgaitasuna baloratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-26/PES-00098. Galdera, sexuagatiko diskriminazio-kasu zehatzetan egindako salaketei edo kexei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-26/PES-00099. Galdera, Nafarroako Gobernuaren Zaintza eta Segurtasun Pribatuko zerbitzuetako langileen 2024tik 2027ra bitarteko lanosagarriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).

F saila:
GALDERAK

11-26/PES-00082. Galdera, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionalaren proiektuan 2024an jaso ziren aldaketa nagusiei eta horien kostu ekonomikoari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionalaren proiektuan 2024an jaso ziren aldaketa nagusiei eta horien kostu ekonomikoari buruzkoa, 2026ko martxoaren 27ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentariora atxikitako foru-parlamentari Cristina Lopez Mañero andreak idatziz erantzun beharreko galdera bat egin du (PES-11-26/00082), Eraikuntzaren Industrializaziorako eta Robotikarako Zentro Nazionalaren exekuzio proiektuan 2024an sartu ziren aldaketa nagusiei eta haien kostu ekonomikoari buruz. Bada, Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuko kontseilariak Nasuvinsa enpresa publikoak emandako informazioa helarazi du, enpresa horrek egin baitzuen aldaketa.

Proiektuaren lehen bertsiotik 2025eko lizitaziorako azkeneko bertsiora, proiektua garatzen jarraitu zen, berrikusten, arau aldaketetara egokitzten, merkatura egokitzen eta aldatzen, eskakizunei erantzuteko.

Aurrekontuko kapitulu guztiak aldatu dira. Proiektu bat berrikusten denean, osorik berrikusten da, ez soilik partida/kapitulu batzuk.

Zenbait aldaketa egin ziren 2022ko proiektuaren bertsioaren eta 2024. urtearen amaierako bertsioaren artean.

Aldaketa nagusiak materialen prezioak eguneratzeagatik izan ziren, eta horrek aurrekontu osoari eragin zion. Halaber, proiektua aldatu egin zen lizentzia lortzeko eskakizunei erantzuteko, batik bat jarduera sailkatuari dagokionez, suteen aurkako babesaren arloan.

Proiektuaren kontrata bakoitzeko exekuzio aurrekontua 2022an 5.273.137 € izatetik 2024ko abenduan 6.456.367 € izatera igaro zen.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko apirilaren 21ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-26/PES-00085. Galdera, Nafarroako landa-eremuetan digitalizazioaren arloan egindako jarduketei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreakk Nafarroako landa-eremuetan digitalizazioaren arloan egindako jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko martxoaren 31ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru-parlamentari Maite Nosti Izquierdo andreak idatziz erantzuteko galdera egin zuen landa eremuak digitalizatzeko neurriei buruz (PES-11-26/00085). Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak ekimen ugari egin ditu landa-ingurunea digitalizatzearen arloan.

a) Neurri horiek zer herri edo landa-eremutan ezarri diren zehazki:

Digitalizazio jarduketak Nafarroako udalerrri guztietarako izan dira, eta landa eremutat hartu dira 20.000 biztanletik behera dituztenak.

Esparru horretan:

- Ehun toki-erakundetan baino gehiagotan jardun da, batez ere 1.000 biztanle baino gutxiagokotan.

- Proiektu zehatzetan:

- 126 toki-erakundek parte hartu dute administrazio elektronikoko ekimenetan.

- 112 udal atxiki dira formalki plataforma digitalekora.

- 40 udal sartu dira arreta omnikanaleko 012 sisteman.

- Osasun-eremu guztietako osasun-etxeak.

- Biztanleria orokorra, aplikazioetan hobekuntzak egitearen bitartez.

- Hiri eremu funtzionaletatik kanpo dauden landa udalerrriak.

- Despopulazio arriskuan edo zaurgarritasun digitalean dauden eremuak.

- Lehen Mailako Arretako 72 egoitza (O-NOZko 61 osasun-etxeak eta 3.000 pertsonatik gora artatzen dituzten 11 kontsultategiak).

b) Garatutako berariazko jarduketak:

Toki-erakundeetan administrazio elektronikoa ezartzea.

Herritarren arreta omnikanala garatzea.

Azpiegitura digitala: CPD zentralizatua.

Herritarren gaikuntza digitalerako programa.

TDTaren sare publikoaren ekipamendua berri-tzea.

Telefono bidezko irisgarritasuna hobetzea Lehen Mailako Arretan.

Telefonogune adimendunak (Contact Center) ezartzea Lehen Mailako Arretan, automatikoki berriro deitzeko aukerarekin.

Osasun karpeta pertsonalaren funtzionalitate berriak.

Lehen Mailako Arretako osasun-etxeetan eta Lizarrako García Orcoyen ospitalean wifi sarea ezartzea.

Telemonitorizazioa, paziente kronikoak etxetik monitorizatzeko, bizi parametroak denbora errealean transmititzeko eta edozein deskonpentsazioren aurrean talde klinikoa ohartarazteko.

Bularreko Minbiziaren Detekzio Goiztiarraren Programaren unitate mugikor berria.

ikasNOVA ikasgeletarako dirulaguntza berriak.

c) Jarduketekin lotutako datu egiaztagarriak:

Hasieratik, Abentura Digitala gaikuntza digitale-rako programak 14.458 prestakuntza eman dizkie ia 10.000 pertsonari.

DigComp 2.2 europar esparruan oinarritutako prestakuntza programa, honako hauentzat:

- Adineko pertsonak.

- Emakumeak.

- Gazteak.

- Herritarrak oro har.

Toki-erakundeetarako azpiegitura komun bat sortzea:

Bi DPZ (Orcoyen eta Beloso) eskuragarritasun handiarekin.

Hauen ezarpena:

- Azpiegitura hiperkonbergentea (HCI).
- Udal zerbitzuen birtualizazioa.
- Backup eta jarraitutasun sistemak.
- Segurtasun aurreratua (firewall, sarbide kontrolak).

Landa udalerrri guztietarako oinarri teknologiko komuna.

• Administrazio elektronikoko plataforma osoen hedapena (SaaS eredu).

Hauen ezarpena:

- Egoitza elektronikoa.
- Erregistro elektronikoa (SIR/ORVE).
- Herritarren zorroa.
- Espedienteen kudeaketa elektronikoa.
- Jakinarazpen elektronikoak.
- Identifikazio sistemak (CI@ve).
- Elkarreragingarritasuna (PID, SIA).
- Datuen migrazioa eta legacy sistemak.
- Udal langileei emandako prestakuntza.

Exekuzio aldia:

Ekintza horiek guztiak pasa den legealditik egiten ari dira.

Eginiko inbertsioa:

- Administrazio elektronikoa: 730.437,33 €.
- Arreta omnikanala: 998.890,82 €.
- CPD azpiegitura: 1.348.425,64 €.
- Gaikuntza digitala: 471.924,70 €.
- Abentura Digitala: 2.313.046,93 €.
- TDTa berritzea: guztizko inbertsioa 2022az geroztik: 4,8 milioi.
- Wifia ezartzea osasun-etxeetan eta García Orcoyen ospitalean: 1.032.251 euro; horietatik 497.000 Next Generation EU Europako Planaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsetatik datoz.
- Bularreko minbiziaren unitate mugikorra: 368.188,48 €.

d) Herritarrengan zer-nolako eragina duen:

Zerbitzu publikoetarako sarbidea:

- Administrazio-izapideak telematikoki egiteko aukera.
 - Joan-etorriak ezabatzea, bereziki garrantzitsua landa eremuetan.
 - Irisgarritasuna hobetzea eta administrazio sinplifikazioa.
 - Administrazio efizientzia hobetzea.
 - Izapidetze denborak murriztea.
 - Prozeduren automatizazioa.
 - Dokumentu kudeaketa eta administrazioen arteko elkarreragingarritasuna hobetzea.
 - Eragina enpleguan eta jarduera ekonomikoan.
 - Enplegarritasuna hobetzea, gaikuntza digitalaren bitartez.
 - Enpresa eta autonomoetarako izapideak erraztea.
 - Digitalizazio maila txikiagoko sektoreak babestea (merkataritza, ostalaritza, lehen sektorea).
 - Oinarrizko gaitasun digitaletan zuzeneko prestakuntza ematea.
 - Eten digitala murriztea:
 - Adinaren arabera.
 - Generoaren arabera.
 - Lurraldearen arabera.
 - Landa-ingurunean bizi-kalitatea hobetzea.
 - Zerbitzu publikoetarako sarbide berdintasuna hiri inguruneei dagokienez.
 - Herritarren gaikuntza digitala maila desberdinetan, oinarrizkoenetik hasi (Android mugikorrak, banka digitala, online erosketak) eta prestakuntza aurreratuagoetara arte (bideo edizioa, hodeiaren antolaketa, diseinua, zibersegurtasuna...).
- Deia itzultzea:
- Herritarrak deitzen duenean arreta jasotzearen sentipena bermatzea.
 - Telefono bidezko arretarako administrazio-langileen esleipena optimizatzea.
 - Lineen saturazioa murriztea.
 - Laguntza eta mantentze lanak sinplifikatzea.
- Osasun Karpeta funtzionalitate berriak:
- Ordezkaritza bidezko sarbidea.

- Hitzartutako Arreta Espezializatuko hitzorduak onartzea/baztertzea 11 egun baino gutxiago lehenago.

- Arreta espezializatuarekin egindako kontsultaren frogagiriak.

- Arreta espezializatuko hitzorduetara ez joatearen justifikazioa.

- Osasun txartel digitala (eTIS).

- RAPIDArako sarbidea.

- Laguntza dispositiboari buruzko informazioa.

- Erizaintzako zainketa txostenak.

- Pasahitza berrezartzea.

- Arreta espezializatuko analitikak ikustea.

- Arreta espezializatuko txostenak (profesionalaren diskrezionalitatearen arabera).

Administrazio datuen online kudeaketa, pazienteari honako hauetarako aukera emanez:

- Harremanetarako datuak (hizkuntza, etxebizitza...) eta NANA aldatzea.

- Osasun Txartel Indibidual birtuala (eTIS) eskusiboki eskatzea, txartelaren kopia bat eskatzea edo izapidearen egoera kontsultatzea.

- Jakinarazpenak jasotzea eta behar diren ekintzak egitea, eskatutako administrazio beharri-zanak konpontzeko.

- Dokumentuak eta irudiak bidaltzea osasun profesionali.

- Irudiak eskatu eta deskargatzea DICOM formatuan.

- Jaioberriei OKP ofizioz sortzea.

- Pazienteari PROM inkestak bidaltzea eta OKPetan betetzea: erradioterapiako PROMak eta fisioterapiako PROMak.

- Push jakinarazpenak bidaltzea pazienteari.

Hezkuntzaren arloko neurriek honako hauek ahalbidetu dituzte:

- Ikasleak oro har ikaskuntzako ingurune digitaletan sartzen direla bermatzea.

- Gailu eta baliabide digitaletarako sarbidean arrakalak murriztea.

- Berrikuntza metodologikoa sustatzea ikaste-txeetan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko apirilaren 24an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-26/PES-00086. Galdera, jakiteko zertan den mozio honen betetze-egoera: Nafarroako Gobernua premiatzen da Itoizko zentral hidroelektrikoa abio beltzeko azpiegitura estrategiko bihurtzeko aukera aztertu eta sustatu dezan CANASA SA eta Red Eléctrica Española (REE) sozietateekin batera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko zertan den mozio honen betetze-egoera: Nafarroako Gobernua premiatzen da Itoizko zentral hidroelektrikoa abio beltzeko azpiegitura estrategiko bihurtzeko aukera aztertu eta sustatu dezan CANASA SA eta Red Eléctrica Española (REE) sozietateekin batera, 2026ko

martxoaren 31ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Ana Elizalde Urmeneta andreak idatziz erantzuteko egindako galdera egin zuen, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-

nuari Itoizko zentral hidroelektrikoa azpiegitura bihurtzea CANASA SA eta Red Eléctrica Española (REE) enprekin batera aztertu eta sustatzeko eskatu zion mozioa betetzeari buruz (11-26/PES-00086). Horri horrela, Nafarroako Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak honako hau jakinarazten du:

Zer kudeaketa egin du Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak mozio hori betetzeko?

Alde hau 11-26/PEI-00284 ekimenari emandako erantzunari lotzen zaio, parlamentari berak baldintza berdinetan egindako eta erregistratutakoari, alegia.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko apirilaren 22an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-26/PES-00088. Galdera, NTV Solutions enpresak jasotako dirulaguntzei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Oihan Mendo Goñi jaunak NTV Solutions enpresak jasotako dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko martxoaren 31ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilariaren erantzuna

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kide Oihan Mendo Goñi jaunak galdera bat egin zuen idatziz. Galdera horren bitartez jakin nahi zuen Imarkoaineko NTV Solutions enpresak zer laguntza edo dirulaguntza jaso dituen azken hamar urteotan egitura edo teknologia inbertsioengatik, energia berriztagarrien sistemak ezarri edo garatzeagatik, enplegua sortzeagatik, belaunaldien arteko erreleboagatik, prestakuntzagatik, prebentzio sistemengatik, I+G+b arloari laguntzeagatik, Berdintasun Plana egin edo garatzeagatik, edo beste edozein kontzepturengatik. Galdera horri dagokionez, Nafarroako Gobernuo Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak honako hau adierazi du:

Ekimen horri erantzunez, jakinarazten dugu Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 12ko 455E/2022

Ebazpenaren bidez 1.294 euroko dirulaguntza eman zitzaiola NTV Logística SA enpresari (IFK: A31614662), Berdintasun Plana egiteko. Ebazpen horren bidez, "2022an Nafarroako Berdintasunerako Institutuak Nafarroako Foru Komunitatean jarduten duten irabazi asmorik gabeko erakundeei eta enpresei emakumeen eta gizonen arteko berdintasun planak ezartzeko dirulaguntzen deialdiaren" esparruan emandako dirulaguntzen ordainketa ebatzen da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilaria: Javier Remírez Apestegua

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariaren erantzuna

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak idatziz erantzuteko galdera egin zuen NTV Solutions enpresak jasotako dirulaguntzei buruz (11-26/PES-00088). Hona hemen Nafarroako Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak horri dagokionez ematen dion informazioa:

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuan honako informazio hau dago:

Ekitaldia	Espediente zenbakia	Zenbatekoa tokiko monetan	Testua	Zentro kudeatzailea	3. erreferentzia-gakoa	Dokumentu-mota	Ordainaren data
2022	CONTA 2022 0080005559	1.076,23	Energia gainkostua	81100	G/810001/4701/422204	O6	2023-01-04
2018	CONTA 2018 0080002990	1.125,00	GIZARTE ERANTZUKIZUNA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZA 2018. URTERAKO	81500	G/810012/4709/494112	O3	2018-11-28

Gainera, jakinarazten da Sodenaren administrazio-kontseiluak, 2020ko ekainaren 5ean egindako bileran onartu zuela NTV Logística SARI (izen komertziala NTV Solutions du) 325.000 euroko mailegua ematea 6 urteko eperako, COVID-19aren pandemiak eragindako diruzaintzako arazoak gainditzeko.

Mailegua 2020ko ekainaren 25ean formalizatu zen, eta amortizazio kuota guztiak zorrotz bete ondoren, txosten hau egin den egunean hiru hilez behingo azken bi kuoten epemugak geratzen dira, guztira 32.500 euroko zenbatekoarekin”.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Kontseilariaren erantzuna

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak 11-26/PES-00088 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Ekonomia, Enpresa eta Lan Politikako zuzendari nagusiaren azaroaren 8ko 599E/2018 Ebazpena atxiki da; horren bitartez, gizarte erantzukizuna sustatzeko dirulaguntza ordaintzen da, 1.125 eurokoa.



RESOLUCIÓN 599E/2018, de 8 de noviembre, de la Directora General de Política Económica y Empresarial y Trabajo, por la que se procede al abono de subvención para el fomento de la responsabilidad social.

REFERENCIA:	Código Expediente: 0011-0699-2018-000054
UNIDAD GESTORA:	Departamento de Desarrollo Económico Servicio de Trabajo Sección de Coordinación y Asistencia Técnica Tfno.: 848427927-- Dirección: Parque Tomás Caballero, 1 - 31005 PAMPLONA Correo-Electrónico: responsabilidadsocial@navarra.es

EXPEDIENTE	
Tipo de Expediente:	Subvención para el fomento de la responsabilidad social para el año 2018
Normas de aplicación:	Ley Foral 11/2005, de Subvenciones.
Titular:	NTV LOGISTICA S.A.
NIF/CIF:	A31614662
Resolución concesión:	155E/2018

Por la Resolución 155E/2018 se aprobó la concesión de una subvención para realizar un plan de actuación de responsabilidad social.

Por el servicio gestor se han realizado actividades dirigidas a comprobar el cumplimiento de los fines para los que fue concedida la subvención, de las condiciones que dan derecho a la misma, así como la validez de los documentos presentados.

De conformidad con lo expuesto, y en ejercicio de las atribuciones que me confiere el artículo 22 de la Ley Foral 15/2004, de 3 de diciembre, de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra

RESUELVO:

1. Abonar la subvención para el fomento de la responsabilidad social por importe de 1.125 euros.
2. Notificar la resolución al solicitante, advirtiéndole que contra esta Resolución, que no agota la vía administrativa, cabe interponer recurso de alzada ante el Consejero de Desarrollo Económico, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación.

Pamplona, a 8 de noviembre de 2018.

LA DIRECTORA GENERAL DE POLÍTICA ECONÓMICA Y EMPRESARIAL Y TRABAJO
Izaskun Gofri Razquin

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko apirilaren 22an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafraña

11-26/PES-00089. Galdera, administrazio-egoera irregularrean egonik ezohiko erregularizazio-prozesuan sar daitezkeen pertsonak artatzeko zerbitzuaren lizitazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, administrazio-egoera irregularrean egonik ezohiko erregularizazio-prozesuan sar daitezkeen pertsonak artatzeko zerbitzuaren lizitazioari buruzkoa, 2026ko martxoaren 31ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Cristina López Mañero jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 11-26/PES-00089 eskariari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak administrazio egoera irregularrean dauden eta Espainiako Gobernuaren Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazioetako Ministerioak sustatutako ezohiko erregularizazio prozedura baliatzen

ahal duten pertsonen arreta emateko berriazko zerbitzu bat ezartzeko egindako azterketaren ondoren, prozesu hori garatzeko ezarritako aldiaren eskusiboki lan hori egiteko, erabaki da egokia dela beste lan ildo eta baliabide batzuk abian jartzea, Nafarroako lurralde osoan ezohiko erregularizazio prozesua samurtzeko eta errazteko.

Hori dela eta, ez da lizitaziorik egingo, eta Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusian (SIOB) atzerritarrei arreta emateko jada bazeuden zerbitzuak indartu dira, Lehendakarietzako, Gobernu Irekiko eta Nafarroako Parlamentuarekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan herritarrei arreta emateko zerbitzuak indartu dira, ezohiko erregularizazio prozesuan arreta jarrita, eta, gainera, zenbait neurri ezarri dira RECEXen erregistratutako atzerritartasunarekin lankidetzan aritzen diren erakundeen lana faboratzeko eta bultzatzeko. Izan ere, erakunde horiek funtsezko eginkizuna beteko dute erregularizazio prozesuan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-26/PES-00090. Galdera, Osasunbidea Osasun Zerbitzuan eta Osasun Departamentuan telelana egiten duten pertsonen buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak Osasunbidea Osasun Zerbitzuan eta Osasun Departamentuan telelana egiten duten pertsonen buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko martxoaren 31ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Txomin González Martínez jaunak 11-26/PES-00090 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, horri dagokionez, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak honako hau jakinarazi du:

Bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliaziorako eta erantzukidetasuna bermatzeko asmoz, Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langilearen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren hogeita bigarren xedapen gehigarriak telelana aurreikusten du zerbitzuak ematea lanaldi modalitate batekin bateragarria den sektoreetan, hain zuzen, modalitate hori betetzeko ez bada beharrezkoa lantokietan eta lan zentroetan fisikoki egotea.

Osasun Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiari dagokionez, sor daitezkeen salbuespen puntualak gorabehera, bi pertsonak asteen behin telelana egiten dute. Pertsona horien lanpostuak administrazio publikoko teknikaria (adar juridikoa) eta administratzailea dira. Pertsona horien eginkizunak ez dira jendeari arreta ematekoak eta ordenagailuz egin daitezke osorik; hortaz, ez da beharrezkoa langileak bertan egotea. Horrenbestez,

bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa eta erantzukidetasuna bermatzeko, telelanari eusten zaio pertsona horientzat.

Osasun Zuzendaritza Nagusiari dagokionez, sortzen ahal diren salbuespen puntualak gorabehera, inork ez du telelanik egiten ohiko moduan.

Nafarroako Osasun Zerbitzuaren kasuan, COVID-19aren pandemian lanpostu jakin batzuetan, lanaldia telelanaren bidez modu ez presentzian egiteko aukera izan zen.

Osasun arloko salbuespen hori amaitu ondoren, administrazioak ez zuen murriztu lan ez presentzial hori baliatzeko aukera kasu askotan, sistema hori edukitzea positiboa zela iritzi baitzion.

Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren maiatzaren 14ko 59/2020 Foru Aginduaren bidez arautu zen nola itzuliko ziren gutxinaka Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile publikoak aurrez aurre lan egitera lantokietan, Normaltasun Berrirako Trantsizio Planaren esparruan.

Orduz geroztik igaro den denboran, eta egin beharreko lanpostuko jarduerak ahalbidetzen duen inguruabar jakin batzuetan aurrez aurre lan ez egiteak dakartzan onurak kontuan hartuta, telelanari eutsi zaio, premisa batzuen babesean eta, betiere, hierarkian langilearen gainetik dagoenak baimenduz gero.

Taula honetan jasotzen dira aurrez aurreko lanik ez duten profesionalen xehetasunak, arloka, azken hiru hilabeteetan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

Trabajo no presencial en el Servicio Navarro de Salud-Osasunbidea por ámbitos (ene, feb y mar de 2026)

ÁMBITO	ESTAMENTO	PUESTO	enero de 2026		febrero de 2026		marzo de 2026	
			Nº profesionales	% sobre días trabajados	Nº profesionales	% sobre días trabajados	Nº profesionales	% sobre días trabajados
SNS - Servicios Centrales	P. Eventual/ No Alto Cargo	SUBDIRECTOR (SSCC)			3	3,57%	1	3,23%
	Facultativos Especialista	F.E.A./ADJUNTO	1	6,45%	1	32,14%	1	3,23%
	Otros Facultativos Sanita	FARMACEUTICO	1	6,45%	1	10,71%	1	16,13%
		QUIMICO (DISCIP.PREV.SEG.TR. E HIG.IIND)	1	22,58%	1	71,43%	1	29,03%
	Técnicos Sanitarios	T.E.O.P.A.	5	5,81%	8	8,48%	5	7,10%
	Jefaturas	JEFE SERVICIO (SNS-O)	7	7,41%	5	12,86%	5	5,16%
		JEFE SECCION	3	11,83%	1	35,71%	1	6,45%
		JEFE UNIDAD			1	10,71%	1	6,45%
	Técnicos de Administración	INGENIERO (DISCIP.PREV.SEG.TR. E HIG.I)	2	19,35%	1	42,86%	2	19,35%
		TEC. GESTION SANITARIA	1	29,03%	1	10,71%	1	12,90%
	Gestión de Administración	ARQUITECTO TECNICO	3	7,53%	3	13,10%	3	10,75%
		DIPLOMADO RELACIONES LABORALES	2	16,13%	3	4,76%	3	5,38%
		INGENIERO BIOMEDICO	1	3,23%	1	3,57%		
	INGENIERO TECNICO	2	6,45%	4	9,82%	3	5,38%	
	TEC. GRADO MEDIO	1	6,45%	4	7,14%	2	6,45%	
	TEC. GRADO MEDIO SISTEMAS INFORMATICOS	4	5,65%	4	11,61%	4	8,63%	
	Administrativa	ADMINISTRATIVO	5	11,61%	5	20,00%	6	13,44%
	Oficiales de Administra.	OFICIAL TECNICO SISTEMAS INFORMATICOS	1	6,45%				
SNS - Hospital Universitario de Navarra	Otros Facultativos Sanita	BIOLOGO CLINICO	1	12,90%				
	Diplomados Sanitarios	TEC. ALIMENTACION	1	3,23%				
	Jefaturas	DIRECTOR (BANCO DE SANGRE)	1		1	25,00%	1	6,45%
	Oficiales de Administra.	ADMINISTRATIVO	1	6,45%	1	7,14%	1	22,58%
SNS - Atención Primaria	Jefaturas Asistenciales	JEFE UNIDAD ENFERMERIA-III	1		1	10,71%		
	Especialistas en Formación	M.I.R.						
SNS - Salud Mental	Jefaturas	JEFE SERVICIO (SNS-O)					1	3,23%
		JEFE SECCION-IIIIC					1	3,23%
SNS - Área de Salud de Estella	Gestión de Administración	TRABAADOR SOCIAL					2	3,23%
							2	3,23%
Total			43	9,46%	50	13,43%	46	8,95%

11-26/PES-00091. Galdera, Tuterako Ikastetxe Integratu Politeknikoa-Eskola Tekniko Industrialean 2025-2026 ikasturtean Soldadura eta Galdaragintzako erdi-mailako heziketa-zikloa ez eskaintzeko arrazoiei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Tuterako Ikastetxe Integratu Politeknikoa-Eskola Tekniko Industrialean 2025-2026 ikasturtean Soldadura eta Galdaragintzako erdi-mailako heziketa-zikloa ez eskaintzeko arrazoiei buruzkoa, 2026ko martxoaren 31ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioak egindako 11-26/ PES-00091 idatzizko galderari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

1. Nafarroako Foru Komunitatean Lanbide Heziketako irakaskuntzen eskaintza programatzea Hezkuntza Departamentuaren berezko eskumena da, eta indarrean dagoen araudiaren esparruan eta hezkuntza-sistemaren plangintza orokorreko irizpideen arabera gauzatzen da.

Plangintza horrek berarekin dakar askotariko faktoreak batera baloratzea (hezkuntzakoak, antolakuntzakoak, lurraldekoak eta ekonomikoak), eta diskrezionalitate teknikorako tarte zabala ematen duen ahala gauzatzearen barne dago.

2. Testuinguru horretan, 2025-2026 ikasturterako Tuterako CIP ETIn eskaintzan Soldadura eta Galdaragintza zikloa ez sartzeko erabakia Lanbide Heziketako prestakuntza eskaintza berrikusteko eta berrantolatzekeo prozesu orokor bati zor zaio, titulazioen maparen koherentzia, zentroen arteko osagarritasuna eta eskuragarri dauden baliabide publikoen optimizazioa bermatzera begira.

3. Aipatu behar da hartutako neurriak ez duela esan nahi ikasketa horiek Nafarroako Foru Komunitate osoan kenduko direnik; hain zuzen, ziklo hori beste ikastetxe batzuetan ematen jarraitzen da, eta horrek bermatzen du nahi duten ikasleek prestakuntza hori jasotzeko aukera izatea.

4. Zikloaren eskariari edo gaiak eragindako ikastetxearen ingurunean laneratzeari buruz egiten ahal diren gogoetei dagokionez, adierazi behar da elementu horiek, kontuan hartu diren arren, ezin direla erabakitzeko irizpide bakarra izan, hezkuntza-plangintzak sistemaren ikuspegi orokorra izatea eskatzen duelako, bikoiztasunak saihesteko eta eskaintzaren banaketa orekatua errazteko.

5. Halaber, erabaki hori hartzeko, kontuan izan dira ikastetxeen baliabide materialen eta giza baliabideen antolaketa eta kudeaketa irizpideak, Administrazio Publikoen jarduketara zuzendu behar duten efikazia, efizientzia eta administrazio onaren printzipioak aplikatuz.

6. Horrenbestez, hartutako erabakia Hezkuntza Departamentuaren eskumenak legez baliatzearen barruan dago, eta ezin da arbitrariotasunik edo ikasleen eskubideen urraketarik antzeman; izan ere, lanbide-arlo horretako prestakuntza eskaintzak Nafarroako hezkuntza-sistemaren barruan egoten jarraitzen du.

7. Horregatik guztiagatik, departamentu honek uste du Tuterako CIP ETIn 2025-2026 ikasturterako Soldadura eta Galdaragintzako erdi mailako zikloa ez eskaintzeko erabakiak administrazio honi dagokion diskrezionalitate teknikoa baliatuz hartutako hezkuntza plangintzako irizpideei erantzuten diela, interes orokorrera eta oro har Lanbide Heziketako sistema hobetzera bideratuta.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-26/PES-00092. Galdera, aerosorgailu-palen bolumenari eta birpotentziatze-prozesuen bidez edo bizitza baliagarriaren amaierara iristeagatik birziklatutako bestelako osagaien bolumenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, aerosorgailu-palen bolumenari eta birpotentziatze-prozesuen bidez edo bizitza baliagarriaren amaierara iristeagatik birziklatutako bestelako osagaien bolumenari buruzkoa, 2026ko apirilaren 17ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-26/PES-00092 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, birpotentziatzeagatik edo bizitza baliagarria amaitzeagatik birziklatzeko aerosorgailuen palen eta beste osagai batzuen bolumenari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Lehenengo galdera: aerosorgailuen palen eta beste osagai ez-metaliko batzuen bolumen osoaren zentsua (tonatan).

Batzordearen 2014/955/EB Erabakiaren bidez onartutako Europako Hondakinen Zerrendak ez du LER kode espezifikorik jasotzen aerosorgailuen paletarako. Ildo horretan, Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak ez du aerosorgailuen palen eta beste osagai ez-metaliko batzuen zentsurik, Nafarroan 2026tik 2030era bitartean birpotentziatze prozesuen edo bizitza baliagarriaren amaieraren ondorioz sortuko direna.

Informazio falta horren arrazoia da birpotentziatze jarduketak nagusiki eolikoen operadore bakoitzaren eta energia plangintzaz arduratzen diren administrazioen enpresa eta energia plangintzan sartzen direla, funtsean Estatuko Administrazio Orokorrean eta, hala badagokio, Industria eta Trantsizio Ekologiko eta Digitalaren Departamentukoan.

Bigarren galdera: ingurumen kontroleko ikus-
kapenak hasitako birziklatze prozesuetan erretxinak lurpera lixibiatzea saihesteko.

Hondakin horiek tratatzeko baimendutako instalazioak Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testuategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan eta Ingurumenearan eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legean aurreikusitako ingurumen ikuskaritza eta kontroleko araubide orokorraren mende daude, dagokien ingurumen baimenean ezarritako baldintzetan.

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak aerosorgailu berrien instalazioaren eta ingurune naturala leheneratzeko neurrien (lur mugimenduak, landareztatzea...) ingurumen jarraipena egiten du, bizitza baliagarriaren amaieran aerosorgailuak kentzetik erator daitezkeenena. Gainera, egiaztatzen du lurlean ez dela geratzen materialik, hondakinik, oliorik eta bestelakorik. Ez dugu inolako esku hartzerik hondakin horiek kudeatzeko moduari dagokionez.

Nolanahi ere, jakinarazi behar da Foru Komunitatearen eremuan baimendutako bi birpotentziatze jarduketak bakarrik daudela, eta egikaritze fasean daudela. Beste bi izapidetze fasean daude.

Hirugarren galdera: "alderantzizko ekodiseinuaren" berriazko neurriak edo desegite planak.

Aerosorgailuei eta haien osagaiei aplikatutako ekodiseinu betebeharrak Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren eskumenetatik kanpo geratzen dira.

Desegite planei dagokienez, horien eskakizuna eta edukia organo substantibo eskudunak, hots, Industriako eta Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak emandako administrazio-baimenean zehazten dira, hala badagokio. Baimen horretan, kendutako aerosorgailuen kudeaketari buruzko baldintzak ezartzen ahal dira.

Ingurumen izapidetzeari dagokionez, Ingurumen Inpaktuaren Adierazpenaren barruan, aurreikusten diren baldintzak, instalazioaren bizitza baliagarria amaitu ondoren, ingurunea leheneratzera eta hasierako egoerara itzultzera bideratuta daude.

Laugarren galdera: abifaunaren eta kiropteroen heriotza tasaren azterlan konparatiboak.

Birpotentziatze proiektuek abifaunan eta kiropteroetan dituzten ondorioen ebaluazioa Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen arabera egin behar da.

Martxan ari den instalazio eoliko bakoitzerako, sustatzaileei eskatzen zaie ingurumen-inpaktuaren azterketak hegaztien eta kiropteroen jarraipenari buruzko informazioa jasotzea urteko ziklo oso batean. Informazio horri esker, parke bakoitza jarri behar den eremuan dauden espezieek talka egiteko duten arriskua zehazten da (aerosorgailuen kokapenaren eta haien ezaugarri teknikoaren mende dago, bereziki haien dimentsioen mende). Ondorioz, ingurumen-ebaluazioak aerosorgailu bakoitzaren bideragarritasuna zehazten du.

Nolanahi ere, parke eolikoak babes bereziko eremuen edo migrazio korridoreen barnean edo kanpoan dauden gorabehera, Ingurumeneko Ebaluazio Atal honek sustatzaileek martxan ari diren parke eolikoetan egiten duten jarraipenean jasotako abifaunaren eta kiropteroen heriotza tasari buruzko

datuak ditu, instalazio horiek birpotentziatzeko ingurumen-inpaktuaren adierazpenak (IIA) egiteko.

Halaber, parke eoliko zehatz bakoitzaren eremuan fauna hegalaria erabiltzen duen espazioari buruzko azterlana dago, sustatzaileek gutxienez urteko ziklo oso batean garatzen dutena. Azterlan hori ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiteko aurkeztu behar den ingurumen-inpaktuaren azterketaren parte da.

Oraindik ez dago lekuan bertan birpotentziatutako parkerik martxan, eta, beraz, ezin da dorrearen altuerak eta palen tamainak hegaztien heriotza tasan duten inpaktuaren azterketa konparatiborik egin. Birpotentziatutako parke berriak eraikitzen joan ahala, egoera aztertzen ahalko da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 6an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-26/PES-00093. Galdera, Moves Planean artatu gabe dauden eskabideak Tximista programan sartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Elizalde Urmeneta andreak Moves Planean artatu gabe dauden eskabideak Tximista programan sartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko apirilaren 17ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Ana Elizalde Urmeneta andreak 11-26/PES-00093 galdera egin zuen Tximista programan Moves Planean zintzilik geratu ziren eskaerak aintzat hartzeari buruz, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta

Digitalerako Departamentuko kontseilariak honako hau jakinarazten du egindako galderei erantzunez:

Eskatzaileak Tximista programan sartzen ahalko dira?

Tximista programak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera erositako ibilgailuen eskaerak jasotzen ditu; hortaz, Moves programa eskatu baina ibilgailua erositako ez balute (aurrekontuarekin bakarrik), beste eskaera bat egiten ahal dute, eta Tximista programaren dirulaguntzei heldu.

Tximista programan, ibilgailua 2026an erosi eta matrikulatuta egon behar da, eta ibilgailu elektrikoa besterik ez du onartzen.

Garrantzitsua da azpimarratzea Moves programaren funtsak IDEAetik zetozela; aitzitik, Tximista programak Nafarroako Gobernuaren funts propioak baliatzen ditu.

Zenbat eskabide daude egoera horretan?

1.329.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 8an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-26/PES-00094. Galdera, Etxegaray BHZko plantillaren salaketari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Etxegaray BHZko plantillaren salaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko apirilaren 17ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-26/PES-00094 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Horri dagokionez, Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak honako hau adierazi behar du:

Ezin dugu beste baliabide batzuetatik BHZ Etxegarayn sartzan diren adingabe migratzaileen kopuruaren datua eman, datu-basea ez dagoelako kategorizatuta irizpide horren arabera; beraz, ezin dugu informazio hori atera.

Adingabeak Behatzeko eta Hartzeko Etxegaray Zentroa baimenduta dago Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuko Ikuskaritza Zerbitzuaren eskutik, 14 plaza izateko, eta 2025eko martxoan ireki zen. Egun horretatik okupazio hori gaintitu duten egunak hauek izan dira:

- 2025eko apirilak 15, 27 eta 28.
- 2025eko maiatzak 18, 19 eta 20.
- 2025eko uztailak 22.

– 2026ko martxoak 5, 6, 19, 28 eta 29.

– 2026ko apirilaren 20tik 23ra eta apirilaren 25etik maiatzaren 1era. Zehazki, hilabete horretan, BHZn 15 eta 16 adingabe artean erregistratu ziren data zehatz horietan, baina ihes egoerak zirela eta, zentroan ez ziren 11 adingabe baino gehiago batera egon.

Haur, Nerabe eta Familia Zuzendariordetzak aginduta (gehienak) edo larrialdi egoeren ondorioz sartzan dira BHZn. Babes sistemako beste zentro batzuetatik lekualdatzeko beharra beren jatorrizko zentroetan bideratu ezin izan diren eta haien eta hirugarrenen osotasunerako (funtsean bizikide dituen adingabeentzat) arriskua dakarten adingabeen desmoldaera pertsonaleko egoerei zor zaie. BHZ Etxegarayk egoera horiei aurre egin ahal izateko beharrezkoak diren espazioak eta langileak ditu.

Adingabe horiekin egiten den lana doikuntza lan bat da, hezkuntzako esku hartzearen bidez, batzuetan neurri murriztaileak aplikatzea ahalbidetuz. Ahal den neurrian, haien bizi errutinei eusten saiatzen dira (prestakuntza, irteerak, etab.), adingabearentzat onuragarriena dena kontuan hartuta. Baliabidetik atzeratzeko arrazoien ondoriozko pertsonekin lantzen da, eta kalteak saihesteko eta konpontzeko neurriak hartzeko beharra lantzen da. Haur, Nerabe eta Familia Zuzendariordetzak neurri egokiena baloratzen du, adingabearentzat baliabide egokiena bilatuz, hezkuntza eta terapia lanarekin jarraitzeko.

BHZ Etxegarayra jokabide desmoldaera larriekin iristen diren adingabeak (hasierako baloraziorako edo beste zentro batzuetatik datozenak) eraijinaren beheko solairuan egoten dira; eremu hori egoera horiei hobeto erantzuteko prestatuta dago. Segurtasun eremu bat dauka, jokabide desmoldaeren balizko egoerei egokiago erantzun ahal izateko, bai eta segurtasun langileak ere, adinga-

beak bere buruarentzat edo hirugarrenentzat arrisku egoera bat direla detektatzen denean esku hartzen ahal dutenak.

Halaber, eremu horrek hezkuntza ratio handiagoa du (goizeko-gaueko 2 hezkuntza figura 4 adingaberentzat), eta, beraz, esku hartze eta laguntza hezitzailea biziagoa izaten ahal da.

Azkenik, adierazi behar da, koordinatzailearen eta talde teknikoaren irizpidearen arabera, zentzuko adingabeen egoeratik arrisku handiagoko egoerak aurreikusten direnean, segurtasun langileen ratioa handitu egiten dela. Era berean, profe-

sionalei jarraibide eta tresna metodologikoak ematen zaizkie, bai taldearen aldizkako bileretan, bai Gizain Fundazioak zuzenean antolatutako prestakuntzetan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 8an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-26/PES-00095. Galdera, Nafarroan gizarte-bonu termikoa ordaintzeko atzerapenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Nafarroan gizarte-bonu termikoa ordaintzeko atzerapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko apirilaren 17ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak 11-26/PES-00095 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Horri dagokionez, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak honako hau adierazi behar du:

Trantsizio energetikorako eta kontsumitzaileen babeserako presako neurrien urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege Dekretuak Gizarte Bonu Termikoa sortu zuen, kontsumitzaile zaurgarrien pobrezia energetikoa arintzeko laguntzak zuzenean emateko programa gisa, berokuntzara, etxeko ur berora edo sukaldera bideratutako energiari dagokionez, Gizarte Bonu Termikoa izenekoa.

Laguntza horren helburua da erabilera termikoetarako energia-hornidura bermatzeko beharrezkoak diren gastuak konpentsatzea edota ener-

gia aurrezteko nahiz efizientzia energetikoa hobetzeko neurriak hartzen laguntzea kontsumitzaile kalteberei.

Laguntza horrekin batera, hartzaileek beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzen ahal dituzte administrazioetatik, erakunde publiko zein pribatuetatik eta erakunde nazional zein nazioartekoetatik helburu bererako. Halaber, laguntza hori bateragarria izanen da elektrizitatearen gizarte-bonuaren laguntzarekin.

8. artikulua, programaren onuradunei dago-kienz, ezartzen du ekitaldi bakoitzean, gizarte bonu termikoaren onuradun izanen direla honako hauek: aurreko urteko abenduaren 31n Sektore Elektriokoari buruzko Legeak (abenduaren 26ko 24/2013 Legea) 45. artikuluan aurreikusten duen elektrizitatearen gizarte bonuaren onuradun diren kontsumitzaileak.

Errege lege-dekretuak, halaber, gizarte bonu termikoa finantzatzeko modua ezartzen du, eta adierazten du gizarte bonu termikoa Estatuko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatzeko dela.

Gizarte bonu termikoaren bidezko laguntzak emateko baldintza aurrekontu-baliabideak egotea izanen da, eta ezinen da gaitzitu Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean urte bakoitzean kontzeptu horretarako finkatzen den aurrekontu muga.

Aurrekontu ekitaldi bakoitzean gizarte bonu termikoa finantzatzeko erabiltzen den aurrekontuko partidan esleitutako diru kopurua 8. artikuluko

onuradun guztien artean banatuko da, urtean ordainketa bakarria eginez.

Onuradun bakoitzak jaso behar duen zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartuko da haren kalteberatasuna zenbaterainokoa den, gizarte bonu elektrikoari buruzko araudian definitzen den moduan, eta zer zona klimatikotan dagoen kokatuta onuraduna erroldatuta dagoen etxebizitza. Hori guztia, errege lege-dekretuaren I. eranskinean ezarritako metodologia aplikatuta.

Dagokion ordainketa kudeatzeko prozeduraren harira, arauak zehazten du laguntzen kudeaketa eta ordainketa autonomia erkidegoei eta autonomia-estatutua duten hiriei dagokiela. Horretarako, Trantsizio Ekologikorako Ministerioak, 11. artikuluan aipatzen den informaziotik abiatuta, ekitaldian xede horretarako dagoen aurrekontuaren lurralde banaketa kalkulatu du, eta diru kopuruak transferituko dizkie ordaintzeko eskumena duten administrazioei, onuradunen eta dagozkien zenbatekoen gaineko informazioarekin batera, aurreko apartatuetan ezarritakoarekin bat etorritz.

Autonomia erkidegoek eta autonomia-estatutua duten hiriek urteko lehen hiruhilekoan ordainduko diete laguntza onuradunei, egokiena iruditzen zaien moduan, beren prozedurak, antolaketa eta onuradunen kolektiboa kontuan harturik, eta laguntzari uko egiteko aukera bermatuko diete beti onuradunei, horrela eskatzen badute.

Kudeatu eta ordaintzeko eskumena duten administrazioek gizarte bonu termikoa dela-eta ezartzen dituzten komunikazio eta prozeduretan argi adieraziko da laguntza Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren aurrekontuaren kargura ematen dela.

Gizarte bonu termikoa arautzen duen arauan bertan ezarritakoa kontuan hartuta, bonuarekin lotuta Nafarroako Foru Komunitatearen eginkizuna da ordaintzaile hutsa izatea, Trantsizio Ekologikorako Ministerioak dagokion aurrekontu transferentzia egin ondoren.

Bada, Foru Erkidegoak 2021era arte ez zuen lehen aurrekontu transferentzia jaso, 2019ko gizarte bonu termikoari zegokiona, 2018ko abenduaren 31n sortutako eskubidea ordaintzeko.

Data horretatik aurrera, Nafarroako Foru Komunitateak dagokion Estatuaren transferentzia jaso du eskubidea sortu den urtearekiko bi urteko desorekarekin; hortaz, 2026an 2024ko gizarte bonu termikoa ordainduko da.

Une honetan, elektrizitate merkaturatzaileek igorritako gizarte bonu elektrikoaren onuradunen zerrendak jaso ondoren, Kotizazio Gabeko Prestazioen eta Babes Sozialerako Bestelako Neurrien Atala onuradunei dagozkien datuak orrazten ari da, batez ere banku helbideratzeari buruzko datuak eta onuradunaren oinordeko izateagatiko eskubidearen egiaztapena, edo eskubidearekiko uko egiteak.

Zeregin horiek egin ondoren, laguntza ordainduko da, eta ordainketa, aurreko urteetako legez, maiatzean egitea aurreikusten da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 6an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-26/PES-00096. Galdera, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen desgaitasuna baloratzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porrás jaunak administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen desgaitasuna baloratzeari buruz egindako galderaren erantzuna,

Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko apirilaren 17ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Javier Arza Porrás jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 11-26/PES-00096 eskariari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia lanean ari da pertsona migratuak arreta zerbitzuetara sartzeko dituzten oztopoak ezabatzeko, eta, horien artean, administrazio egoera irregularrean egonez gero desgaitasun aitortza lortzeko ezintasuna ezabatzeko.

Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak nahiz administrazio honetako beste departamentu batzuek egoera hori agerian utzi dute Nafarroako Gobernuak (Osasun Departamentua eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua) 2026ko apirilean egindako Nafarroako Arreta Soziosanitarioaren Egoeraren Diagnostikoan parte hartu zutenean; hain zuzen, 27. orrialdean, honako hau adierazten du:

– “Pertsona migratuak, arreta soziosanitarioko profil emergente gisa. Egindako lan bileretan, ia aho batez aipatu da atzerritarren taldea dela arreta soziosanitarioko profil emergente nagusietako bat, pertsona horiek Nafarroan hartzen joan diren

pisu gero eta handiagoa kontuan hartuta. Talde oso heterogeneoa osatu arren, migrazio estatusa arrisku faktore argi gisa agertzen da osasunari eta gizarte zaurgarritasunari dagokienez, askotariko arrazoiengatik:

•Arreta zerbitzuetarako sarbidea zailtzen duten egiturazko faktoreak, hala nola mendekotasuna edo desgaitasuna aitortzeko ezintasuna, administrazio egoera irregularrean egonez gero...”.

Hori dela eta, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko apirilaren 5eko 13/2023 Foru Legearen 2. artikuluan aipatzen diren zuzeneko eta zeharkako diskriminazioaren definizioak kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da azterketa sakonago bat egitea gure komunitatean administrazio egoera irregularrean bizi diren pertsonen desgaitasunaren gradua eta maila baloratzeko, aitortzeko eta egiaztatuzko prozedurara sartzeko oztopo horri buruz, diskriminaziorik egoten ahal den zehazteko, hobetzeko ekintzak baloratze aldera.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 6an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-26/PES-00097. Galdera, erregularizatu gabeko egoeran dauden migratzaileei desgaitasuna baloratzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porrás jaunak erregularizatu gabeko egoeran dauden migratzaileei desgaitasuna baloratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko apirilaren 17ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Javier Arza Porrás jaunak 11-26/PES-00097 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Azken hiru urteetan Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren Balorazio Zentroak izapidetutako desgaitasuna baloratzeko 16.295 espedienteetatik 104 artxibatu dira, nazionalitate atzerritarra duten pertsonen desgaitasuna baloratzeko eskaerei dagozkienak, eskatu-

tako dokumentazioa ez aurkezteagatik; besteak beste, honako hauek: identifikazio dokumentazioa, bizileku-ziurtagiria, familia-liburua adingabeen kasuan, edo balorazio eskaera justifikatzen duten mediku txostenak. Aipatu behar da, gaur-gaurkoz, ezin dela artxibatzekeko arrazoi bakoitzari dagokion kopurua zehaztu, espediente horietako bakoitza eskuz berrikusi beharko bailitzateke.

Horri dagokionez, nabarmendu behar da desgaitasunaren balorazioa urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuak arautzen duela. Horren bidez, desgaitasun maila aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen da eta, 1. artikuluen arabera, helburu hau du: “desgaitasun maila aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko prozedura arautzea, aplikatu beharreko baremoak ezartzea eta organo eskudunak zehaztea, hori guztia pertsonari eragiten dion desgaitasun mailaren ebaluazioa uniformea izan dadin Estatuko lurralde osoan, eta, horrela, herritarrek legerian aurreikusitako eskubideak baliatzeko baldintza berdintasuna izan dezaten”.

Beraz, Estatuko araudia da, administrazio autonomikoak nahitaez bete beharrekoa; eta administrazio autonomikoaren barnean dago Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua.

Atzerritartasunaren arloko eskumenak, halaber, Estatuarenak dira; hortaz, 4/2000 Lege Organikoa (urtarrilaren 11koa, Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzkoa, eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa) ere aplikatu behar da. Lege horren 14.2 artikulua Gizarte Segurantzaren eta gizarte zerbitzuak eskuratzeko eskubideari buruzkoa da, eta honako hau adierazten du: “Espainian bizi diren atzerritarrek gizarte-zerbitzu eta -prestazioak jasotzeko eskubidea izango dute, horiek orokorrak eta oinarrizkoak izan zein bereziak izan, espainiarren baldintza berberetan. Nolanahi ere, desgaitasuna duten atzerritarrek hemezortzi urte baino gutxiago badituzte eta ohiko etxebizitza Espainian badute, beren egoera fisikoak edo psikikoak eskatzen dituen tratamenduak, zerbitzuak eta zaintza bereziak jasotzeko eskubidea izango dute”.

Halaber, arau horren 3. puntuak honako hau adierazten du:

“3. “Atzerritarrek eskubidea dute oinarrizko gizarte-zerbitzu eta -prestazioak izateko, euren administrazio-egoera edozein dela ere”.

Aipatutako Lege Organikoren 29. artikuluko “bizilekua izateko egoeran” dagoen atzerritarren, hots, legezko egoeran, eta “egonaldi-egoeran” dagoenaren arteko bereizketak zehazten eta parekatzen ditu eskubideetan lehenengoak (desgaitasunaren balorazioa barne) eta Espainiako nazionalitatea duten herritarrak. Departamentuak, legezketasun egoeran nor dagoen eta nor ez dagoen zehazteko eskumenik ez duenez, ezin du jardun.

Nolanahi ere, eta lege organikoak berak ahalbidetzen duen jarduteko tartearen barruan, desgaitasunen bat duten adingabeak Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak baloratzen eta artatzen ditu, eta Esparru Orokorreko Gizarte Zerbitzuen Zorroan jasotako zerbitzuak eskuratzen dituzte, haien inguruabar pertsonalen eta beharrezanaren arabera.

Era berean, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumeneren eremu eskusiboan eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen 4. artikuluan ezarritakoaren babesean, ezohiko etxegabetasun egoerak artatzen dira, pertsonaren administrazio egoera edozein dela ere, eta, horrez gain, Esparru Orokorreko Gizarte Zerbitzuen Zorroko diru-sarrerak bermatzeko eta bizirauteko prestazioak daude, eskatzaileak legezko bizilekua duen edo ez duen egoeratik kanpo ere ematen direnak, hala nola foru eskumen eskusiboko errenta bermatuaren prestazioa.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 8an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-26/PES-00098. Galdera, sexuagatiko diskriminazio-kasu zehatzetan egindako salaketei edo kexei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Oihana Gallo San Román andreak sexuagatiko diskriminazio-kasu zehatzetan egindako salaketei edo kexei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko apirilaren 17ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kide Oihana Gallo San Román andreak galdera bat egin du, 2025ean publizitatean eta komunikabideetan emakumeen tratamenduarekin lotutako eta sexuagatiko diskriminazioagatik erregistratutako kexen edo salaketen kopuruari buruz. Galdera horri dagokionez, Nafarroako Gobernuak Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak honako hau adierazi du:

Ekimen horri erantzunez, jakinarazten du Nafarroako Berdintasunerako Institutuak 2025ean 22

komunikazio jaso zituela sexuagatiko diskriminazio-gatiko salaketen edo kexen aurrean jarduteko prozeduraren esparruan.

Prozedura horren xedea da sexuagatiko diskriminazioko balizko egoerekin lotuta egindako salaketak edo kexak artatzea, aztertzea eta bideratzea, bai eta publizitatean eta komunikabideetan emakumeen tratamenduarekin lotutakoak ere.

Jasotako 22 kexetatik:

– Guztira, 14 komunikazio zetozen bat prozeduraren xedearekin, eta aztertu, ebatzi eta/edo, hala bazegokion, organo eskudunari bideratu zitzaizkion.

– Guztira 8 komunikazio ez zetozen bat prozeduraren xedearekin, ez baitzuten planteatzen sexuagatiko balizko diskriminazio egoerarik, ezta publizitatean eta komunikabideetan emakumeen tratamenduarekin lotutakorik ere.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 6an

Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

11-26/PES-00099. Galdera, Nafarroako Gobernuaren Zaintza eta Segurtasun Pribatuko zerbitzuetako langileen 2024tik 2027ra bitarteko lanosagarriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Emilio Jiménez Román jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Nafarroako Gobernuaren Zaintza eta Segurtasun Pribatuko zerbitzuetako langileen 2024tik 2027ra bitarteko lanosagarriei buruzkoa, 2026ko apirilaren 17ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Talde parlamentario mistokoa eta Nafarroako Gorteetako kidea den eta VOX talde parlamentarioari atxikita dagoen foru-parlamentario Emilio Jiménez Román jaunak idatzi bat egin zuen (11-26/PES-00099), idatziz erantzun zekion. Hori horrela, Nafarroako Gobernuak Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako hau adierazi du:

Tafallako Justizia Jauregiko langile subrogagarrientzako esparru akordioan ezarritako soldata osagarriak honako hauek dira:

2 erradiokopia plus (lan egindako ordu bakoitzeko)

2 arrisku plus

5 lanpostu plus

Plus horiek ezarri ziren enpresa adjudikaziodunak, une hartan INVICO SL enpresak, datuak igorri ondoren.

Eginkizunak eraikin berean egiten dituzten eta une hartan subrogagarriak ez ziren gainerako langileek plus hauek jasotzen dituzte:

2 erradiokopia plus (lan egindako ordu bakoitzeko)

2 arrisku plus

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 5ean

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: Inmaculada Jurío Macaya

